

## KULTURKRITIKA

» LIBURUA

## Iraganari iskin egiteko ezintasuna



Amaia Serrano Mariezkurrena

Irudimena lagun, uretara eroritako ileak suge bihurtzen direla pentsatzen dute Josek eta Inasek, haur direla. Fantasiaraz beteriko uste horrek errealitate gogor batekin egiten du talka, ordea, eta hala ere, ezarian harrapatzen du istorioak irakurlea, narrasti hark bezala. Bi plano narratibotan egituraturik gorpuzten da nobela, 1936ko Gerrako kontakizunak eta gerraostetik gatazkara bitartekoak uztartuz.


Nafarroan gauzatzen da istorioaren zatirik handiena, gerrako gertakizunen gaineko isiltasuna –baita literarioa ere– beste euskal lurraldeetan baino nabarmenagoa izan den eremuan. Bertan kokatzen ditu narratzaile orojakileak 80-90etako gazteen hainbat arazo eta aldarrikapen baita ETArekin zenbait ekintza ere. Begirada zorrotzez epaitzen ditu narratzaileak gerrako gertaerak, baita ondoren sortutako talde armatuaren hilketak ere –garaiko beste auzi batzuk aipatu gabe utziz edota arin azalduz–.

Egoera konplexuak dira nagusi eleberrian. Inas protagonista bera kontraesanak bizi du, bere hezkuntza aitona frankistaren diruak ahalbidetu baitu, eta inguruko baserrietako haurrek izan ez duten aukera horren atzean *Abuelo* egoteak deserosotasuna sorrarazten baitio. Horrez gain, eleberrian zehar hedatzen den beste kezka-iturri etiko bat ere badauka: iraganeko egiak ezagutaraztearen eta bizikidetzaren artean hautatzeko zailtasuna. Bide horretan, haren aita gerran erail izana argitzeko hartutako erabakiek markatuko dute Inas; izan ere, Iruñera bizitzera joatea erabakiko du, aitaren

***Ileak uretan***

JOSU PENADES

Pamiela, 2012



*Josu Penades Bilbao (Bermeo, 1962) idazlea eta literatura irakaslea.*



iragana berreraikitzeke asmoz.

Hautu horren sinesgarritasuna gorabehera, bertan lortzen du lanbidea eta osatzen familia: bere ikasleei ezagutza transmititzeko abileziak eta seme-alabekiko harremanek haren irudia osatzen laguntzen dute. Hala ere, narratzailea alderdi min horietatik hanka-puntetan pasatzen da, interesgarriak lirartekeen zenbait hari josi gabe utziz –bere ama Margaritaren irudian eta zaurietan arakatu gabe, esaterako–.

Gertaeren erritmo narratiboa orekatua da, oro har, baina gertakari batzuei eskainitako azalpenak laburregi geratzen dira –zenbait heriotza bat-batean gertatzen dira, adibidez–. Horren ifrentzua, ordea, zehaztasun handiz eraikitako errealitatea da: baserriko familien bizimodua, presondegiatako bizi-baldintzak eta abarrak oso modu plastikoan deskribatzen dira, hainbestearino non krudeltasun zenbaiten xehetasunek itolarria eragin diezaioketen irakurleari. ■